



**PINK
TONGUE**

BALORE PROPOSAMENA

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUZUE?

Gure egunerokoan, bidaiatzen ari garenean, kirola egiten ari garenean... musika entzuteko edo filmak ikusteko joera dugu. Askotan arazoak izaten ditugu entzuteko, mugikor bat izanik bi pertsona garelako eta ingurukoak molestatu nahi ezean ezin izaten dugulako musikarik edo filmik ikusi. Gure proiektuaren helburua arazo hau konpontzea da: mugikor edo ordenagailu batetik bi gailu edo gehiago konekta ahal izatea.

ZE BEREIZTEN ZAITU ETA, BERAZ, ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA ZURI ORDAINTZEKO PREST?

Merkatuan ez dagoelako horrelako beste eskaintza zein produkturik, eta zerbait berritzailea den heinean, jendeak kuriositatea izango du.

BALIO MOTA:


Bezereok lortuko duten balioa kualitatiboa izango da, zeren eta zerbait berritzailea eskeintzen diegu. Gure bezeroak mugikorretako, ordenagailuetako... markak izango dira, adibidez: Apple, Xiaomi, Samsung, Acer...

PREZIOA:

Kontuan izan behar dugu guk gure produktua ez diegula pertsona arruntei saldu behar, hau da, enpresei salduko diegun produktua da gurea. Hori horrela izanik, Txip bat egiteko behar diren materialak: txipak egiteko olatak, irrati-maiztasuneko transzeptorea, oinarritzko banda-maila eta protokolo-pila. Hori horrela izanik, eta sarean horiek zenbat balio duten ikusita, txip bat egiteko guztizko prezioa 16.51€-koa izango da.

DISEINUA:

Gure helburua gailu txiki bat sortzea da, non, mugikorretan aplikatu ahaliko den, txip antzerako zerbait, non gailu elektronikoetan instalatuta egongo da eta honen bitartez ahalbidetuko dugu gure ideia aurrera eramatea. Adibidez, txip hori ordenagailu baten instalatzen baldin badugu, ordenagailu hori bi bozgailu ezberdinetara konektatzeko gai izango da.



Txipa irudian ikusten dugunaren antzekoa izango da, eta horrekin hainbat gailu elektroniko konektatu ahal izateko funtzioa ahalbidetuko du. Txipa mugikorraren barruan sartuko da. Gure proiektuaren diseinuak ez du oztopatzen mugikorraren gainerako funtzioetako bat bera ere, ez dio pisu handirik gehitzen mugikorrari eta ikusezina izango da, hau da, ez du ondoriorik izango mugikorraren diseinuan.